

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

2013ko otsailaren 26ko 8/2013 FORU DEKRETUA, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena.

Orain arte, 61/2004 Foru Dekretuak, ekainaren 15ekoak, arautu ditu fakturatzeko obligazioak. Foru Dekretu hori 1/1985 Foru Arau Orokorra (urtarrilaren 31koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zergei buruzkoa) indarrean zegoela eman zen, harrezkero hainbat aldaketa izan baditu ere, azkenekoa 16/2011 Foru Dekretuak (maiatzaren 24koak, faktura egiteko obligazioei buruzko ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretua eta Zerga Administrazioari informazioa emateko betebeharrei buruzko abenduaren 21eko 117/1999 Foru Dekretua aldatzen dituenak) ezarritakoa.

Balio Erantsiaren Zergaren esparruan eta fakturazioari dagokionez, gai honi buruzko Europar Batasunaren araudia Kontseiluaren 2001/115/EE Direktiba, 2001eko abenduaren 20koa, onartu zenean ezarri zen. Direktiba horrek aldatu zuen Kontseiluaren 77/388/EE Direktiba, 1977ko maiatzaren 17koa, negozio bolumenaren gaineko zergen arloko Estatu kideen legeria harmonizatzeari buruzkoa - Balio Erantsiaren Zergaren sistema erkidea: Oinarri ezargarri uniforme, seigarren Direktiba. Aldaketa horien helburua fakturen jaulkipena harmonizatzea eta sinplifikatzea zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren esparruan.

Bestalde, Kontseiluaren 2006/112/EE Direktibak, 2006ko azaroaren 28koak, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoak, Kontseiluaren 77/388/EE direktiba, 1977ko maiatzaren 17koa, ordeztu zuen 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hala ere, oraindik aukera ugari eskaintzen zaizkie Europar Batasuneko Estatuak eta, ondorioz, Estatuak mantentzen dituzten barne araudiak direla-eta, ez da lortu Direktibarekin lortu nahi zen harmonizazioa edo elkarrengana hurbiltzea.

Europar Batasuneko estatuak legerien arteko dibergentziak eta Direktiba hark arautzen ez zituen hutsune batzuk egoiteak bultzatuta, Direktiba berri bat eman zuen Europar Batasunak: 2010/45/EB Direktiba, 2010eko uztailaren 13koa, 2006/112/EE Direktiba, balio erantsiaren gaineko zergaren sistema erkideari buruzkoa, aldatzen duena fakturazio arauak dagokienez, eta estatu kideen barne ordenamendu juridikora aldatu beharrekoa.

Azken Direktiba horren helburu nagusiak dira, barne merkatuaren funtzionamendu egokia bermatzeaz gain, subjektu pasiboen karga administratiboa arintzea, paperezko fakturak eta faktura elektronikokoak berdintasunez tratatuko direla bermatzea, transakzio ekonomikoak erraztea eta agente ekonomikoen segurtasun juridikoa hobetzen laguntzea gaia erregulatzen duen araudiaren aplikazioari dagokionez.

Foru dekretu honen helburua 2010/45/EB Direktibak fakturazioari buruz egindako aldaketak gure araudian txertatzea da, esparru horretako obligazioak arautzen dituen Erregelamendua bat onartuz.

Indargabetzen den erregelamenduaren sistematika berari jarraitzen dio Erregelamenduak, eta 2010/45/EE Direktibak sartutako lege-agindu berritzaileak jaso eta garatzen ditu.

Sartzen diren berrikuntza nagusiak honakoak dira:

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL 8/2013, de 26 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento que regula las obligaciones de facturación.

Las obligaciones de facturación han venido siendo reguladas por el Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio. Dicho decreto foral fue dictado bajo la vigencia de la Norma Foral 1/1985 de 31 de enero, General Tributaria, aunque posteriormente fuera objeto de diversas modificaciones, siendo la última la llevada a cabo por el Decreto Foral 16/2011, de 24 de mayo, por el que se modifican los Decretos Forales 61/2004, de 15 de junio, sobre obligaciones de facturación y 117/1999, de 21 de diciembre, sobre obligaciones de suministro de información a la Administración tributaria.

En el ámbito del Impuesto sobre el Valor Añadido y en materia de facturación, la normativa comunitaria que reguló la materia se produjo con la aprobación de la Directiva 2001/115/CE del Consejo, de 20 de diciembre de 2001, que modificó la Directiva 77/388/CEE del Consejo, de 17 de mayo de 1977, en materia de armonización de las legislaciones de los Estados miembros relativas a los impuestos sobre el volumen de negocios-Sistema común del Impuesto sobre el Valor Añadido: Base imponible uniforme sexta Directiva. Estas modificaciones tenían por objeto la armonización y simplificación de la expedición de facturas en el ámbito del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Por su parte, la Directiva 2006/112/CE del Consejo, de 28 de noviembre de 2006, relativa al sistema común del impuesto sobre el valor añadido, sustituyó, desde el 1 de enero de 2007, a la Directiva 77/388/CEE del Consejo, de 17 de mayo de 1977.

Sin embargo, la existencia de todavía un amplio número de opciones ofrecidas a los Estados miembros de la Unión Europea ha dado lugar a que las normativas internas mantenidas por los mismos, en materia de facturación, no hayan alcanzado el grado de armonización o aproximación deseado.

La divergencia de legislaciones en los Estados miembros de la Unión Europea y la existencia de ciertas lagunas no reguladas por la Directiva comunitaria, condujeron a la aprobación de la Directiva 2010/45/UE, de 13 de julio de 2010, por la que se modifica la Directiva 2006/112/CE relativa al sistema común del impuesto sobre el valor añadido, en lo que respecta a las normas de facturación, que debe trasponerse al ordenamiento jurídico interno de los Estados miembros.

Además de garantizar el correcto funcionamiento del mercado interior, los principales objetivos perseguidos por esta última Directiva son reducir las cargas administrativas de los sujetos pasivos, garantizar la igualdad de trato entre las facturas en papel y las facturas electrónicas, facilitar las transacciones económicas y contribuir a la seguridad jurídica de los agentes económicos en la aplicación de la normativa reguladora de la materia.

El presente decreto foral tiene por objeto incluir en nuestra normativa las modificaciones introducidas por la Directiva 2010/45/UE en materia de facturación, mediante la aprobación de un Reglamento por el que se regulan las obligaciones en dicho ámbito.

El Reglamento sigue la misma sistemática que el Reglamento que se deroga, incorporando y desarrollando los preceptos novedosos introducidos por la Directiva 2010/45/UE.

Las principales novedades que se introducen son las siguientes:

— Enpresari eta profesionalen segurtasun juridikoa handiago izan dadin, argitu egiten dira Erregelamendu horretan ezarritako fakturazio arauak aplikatu behar diren kasuak.

— Faktura jaulkitzeko obligazioari dagokion berrikuntza gisa, ezartzen da obligazio hori ez exijitzea finantza zerbitzu eta aseguru prestazio jakin batzuen kasuan, non eta ez den ulertzen eragiketa horiek zergaren aplikazio lurraldean, edo Europar Batasuneko beste estatu batean, egin direlarik salbuetsirik ez baizik eta zergapetuta daudela.

— Lehen aipatutako 2010/45/EE Direktibak ezarritako bidetik fakturazio sistema harmonizatua ezartzearren, eta enpresari txiki eta ertainen zein profesionalen funtzionamendua sustatu eta erraztearren, ezartzen den fakturazio sistemak bi faktura mota izango ditu oinarri: Faktura oso edo arrunta, eta tiket deituak ordezkaturako dituen faktura sinplifikatua.

Faktura sinplifikatuek faktura oso edo arruntek baino eduki murriztagoa dute eta, salbuespen batzuk badiren arren, jaulkitzeko obligazioa duenak berak aukeratzen duenean jaulki ahal izango dira, baldin eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga erantsita 400 eurotik gorakoak ez badira, faktura zuzentzailak badira edo Balio Erantsiaren gaineko Zerga erantsita 3.000 eurotik gorakoak ez badira; azken kasu honetan, dena den, fakturen ordezkari jaulkitzea baimendu izan den balizkoetako bat izan behar du.

Era berean, fakturazio arloko erregulazio berriak bultzada sendoa emango dio fakturazio elektronikoiari, Batasunaren Direktibak ezarritako helburua betez eta paperezko fakturari eta faktura elektronikoiari tratu bera emateko printzipioari jarraiki, kostuak murrizteko eta enpresak lehiakorragoak egiteko tresnatzat.

Definizio berriaren arabera, Erregelamenduan bertan ezarritako baldintzak betez formatu elektronikoz jaulki eta jaso den faktura izango da faktura elektronikoa.

Horretaz gain, eta aipatutako 2010/45/EE Direktibak gogoratzen duen moduan, paperezko fakturek edo faktura elektronikoen islatu behar dute dokumentatzen dituzten eragiketen errealitatea, eta subjektu pasiboek dagokie ziurtasun hori bermatzea haien indarraldi osoan zehar. Exijentzia honek ez die inolaz ere enpresari edo profesionali karga administratibo berririk gaineratu behar.

Horrela, subjektu pasiboak bere enpresa-jarduerako edo jarduera profesionaleko ohiko kudeaketa-kontrolen bidez bermatu ahal izango du jaulkitzen edo gordetzen dituen fakturen benetakotasuna, osotasun eta irakurgarritasuna.

Paperezko fakturaren eta faktura elektronikoen arteko tratu berdintasun honek areagotu egiten ditu, horrenbestez, subjektu pasiboak bide elektronikoz fakturak jaulki ahal izateko aukerak, faktura horretarako teknologia jakin bat erabili beharrik gabe.

Dena den, dagoeneko datuen truke elektronikoa (EDI) eta sinadura elektronikoa aurreratua erabiltzen ari ziren subjektu pasiboek segurtasun juridikoa bermatzearen, Erregelamendu honek berariaz onartzen du aurrerantzean derrigorrezkoak izango ez diren teknologia horiek bermatzen dutela faktura elektronikoen sorburuaren benetakotasuna eta edukiaren osotasuna. Era berean, eta aipatutako xedeaz, subjektu pasiboek aukera izango dute aipatutako baldintzak bermatzen dituztela deritzoten baliabideak zerga administrazioari aditzera emateko, erabiltzen hasi aurretik betiere, hala badagokio administrazioak berak balida ditzan.

— Para una mayor seguridad jurídica de los empresarios o profesionales, se aclaran los casos en los que se deben aplicar las normas de facturación establecidas en dicho Reglamento.

— Como novedad relativa a la obligación de expedir factura, se establece que no se exigirá tal obligación en el caso de determinadas prestaciones de servicios financieros y de seguros, salvo cuando dichas operaciones se entiendan realizadas en el territorio de aplicación del Impuesto, o en otro Estado miembro de la Unión Europea, y estén sujetas y no exentas.

— Con la finalidad de establecer un sistema armonizado de facturación, en el sentido marcado por la Directiva 2010/45/UE antes mencionada, y de promover y facilitar el funcionamiento de los pequeños y medianos empresarios, así como de los profesionales, se establece un sistema de facturación basado en dos tipos de facturas: La factura completa u ordinaria y la factura simplificada, que viene a sustituir a los denominados tiques.

Las facturas simplificadas tienen un contenido más reducido que las facturas completas u ordinarias y, salvo algunas excepciones, podrán expedirse, a elección del obligado a su expedición, cuando su importe no exceda de 400 euros, Impuesto sobre el Valor Añadido incluido, cuando se trate de facturas rectificativas o cuando su importe no exceda de 3.000 euros, Impuesto sobre el Valor Añadido incluido y se trate, en este último caso, de alguno de los supuestos respecto de los que tradicionalmente se ha autorizado la expedición de tiques en sustitución de facturas.

Asimismo, la nueva regulación en materia de facturación supone un decidido impulso a la facturación electrónica, cumpliendo la finalidad marcada por la Directiva comunitaria, bajo el principio de un mismo trato para la factura en papel y la factura electrónica, como instrumento para reducir costes y hacer más competitivas a las empresas.

Se establece una nueva definición de factura electrónica, como aquella factura que, cumpliendo los requisitos establecidos en el propio Reglamento, haya sido expedida y recibida en formato electrónico.

Por otra parte y, como recuerda la Directiva 2010/45/UE mencionada, se establece que las facturas en papel o electrónicas deben reflejar la realidad de las operaciones que documentan y corresponderá a los sujetos pasivos garantizar esta certidumbre durante toda su vigencia, sin que esta exigencia pueda suponer la imposición de nuevas cargas administrativas a los empresarios o profesionales.

De esta forma, el sujeto pasivo podrá garantizar la autenticidad, integridad y legibilidad de las facturas que expida o conserve mediante los controles de gestión usuales de su actividad empresarial o profesional.

Esta igualdad de trato entre la factura en papel y la electrónica amplía, por tanto, las posibilidades para que el sujeto pasivo pueda expedir facturas por vía electrónica sin necesidad de que la misma quede sujeta al empleo de una tecnología determinada.

No obstante, para garantizar la seguridad jurídica de los sujetos pasivos que ya venían utilizando el intercambio electrónico de datos (EDI) y la firma electrónica avanzada, este Reglamento reconoce expresamente que dichas tecnologías, que dejan de ser obligatorias, garantizan la autenticidad del origen y la integridad del contenido de las facturas electrónicas. Asimismo y con el señalado fin, los sujetos pasivos podrán seguir comunicando a la Administración tributaria, con carácter previo a su utilización, los medios que consideren que garantizan las condiciones citadas, al objeto de que sean, en su caso, validados por la misma.

Azkenean, eta 2010/45/EE Direktibak ezartzen duen harmonizazioaren ildotik, epe bat finkatzen da Batasunaren barruan zertutako ondasun entrega edo zerbitzu prestazio jakin batzuei dagozkien fakturak jaulkitzeko. Era berean, subjektu pasiboen kudeaketa administratiboa errazte aldera, egoki iritzi zaio epe hori berori aplikatzeari beste enpresari edo profesional batzuentzat egindako mugaz barmeko zein mugaz gairikoa eragiketa guztietarako. Faktura laburtzaileei ere eragiten die epe honek.

Hortaz, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua onartzea.

Onarturik geratzen da fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua, foru dekretu honetan eranskin gisa atxiki dena.

2. artikulua. Finantza eragiketa jakin batzuk frogatzea.

1. Balore higigarrien erosketa esku hartu duen fedee-mailak egindako agiri publikoaren bidez frogatu ahal izango da, baita finantza entitateak edo, halakorik bada, inbertsio zerbitzuen enpresak egindako dokumentuaren bidez ere. Bertan eragiketaren datu guztiak jaso beharko dira.

Eskualdatu, amortizatu edo berreskuratzean atxikipena izan behar duten etekin inplizituko nahiz etekin esplizituko aktibo finantzarioak erosten badira, honako xedapenak kontuan hartuz frogatuko da haien erosketa: Ekainaren 10eko 45/1997 Foru Dekretua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua onartzekoa (56. artikulua), eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, abenduaren 18ko 137/2007 Foru Dekretuak onartua (111. artikulua).

2. Kreditu entitateek egindako eragiketen gastu eta kenkariak entitateak egindako agiri, laburpen edo kargu oharra aurkeztuz frogatu ahal izango dira. Bertan faktura batean berez jaso behar diren datuak agertuko dira, zenbakia eta seriea izan ezik.

3. artikulua. Entitate laguntzaileen operatibaren baldintzak, bidaiarien erregimenean Balio Erantsiaren gaineko Zerga itzultzeko.

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari dagokio zehaztea zein baldintza bete beharko dituzten Ogasun Zuzendaritza Nagusiak entitate laguntzaile gisa parte hartzeko baimendutako entitateek, 102/1992 Foru Dekretuak (abenduaren 29koak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak) 117. artikulua Hirugarren apartatuan aipatzen duen itzulketa prozeduran, 102/1992 Foru Dekretu beraren 21.2 artikuluan araututako bidaiarien erregimeneko zerga itzulketa prozedurari dagokionez.

Finalmente, en línea con la armonización que marca la Directiva 2010/45/UE, se establece un plazo para la expedición de las facturas correspondientes a determinadas entregas de bienes o prestaciones de servicios intracomunitarias. Asimismo, con la finalidad de facilitar la gestión administrativa de los sujetos pasivos, se ha estimado conveniente aplicar ese mismo plazo a todas las operaciones efectuadas para otros empresarios o profesionales, tanto interiores como transfronterizas. Este plazo afecta, igualmente, a las facturas recapitulativas.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo 1. Aprobación del Reglamento que regula las obligaciones de facturación.

Se aprueba el Reglamento que regula las obligaciones de facturación, que se adjunta anexo al presente decreto foral.

Artículo 2. Justificación de determinadas operaciones financieras.

1. La adquisición de valores mobiliarios podrá justificarse mediante el documento público extendido por el fedatario interviniente o mediante el documento emitido por la entidad financiera o, en su caso, por la empresa de servicios de inversión, comprensivo de todos los datos de la operación.

La adquisición de activos financieros con rendimiento implícito, así como de aquellos otros con rendimiento explícito que deban ser objeto de retención en el momento de su transmisión, amortización o reembolso, se justificará conforme a lo dispuesto en el artículo 56 del Decreto Foral 45/1997, de 10 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, y el artículo 111 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral 137/2007, de 18 de diciembre.

2. Los gastos y deducciones por operaciones realizadas por entidades de crédito podrán justificarse a través del documento, extracto o nota de cargo expedido por la entidad en el que consten los datos propios de una factura salvo su número y serie.

Artículo 3. Condiciones de la operativa de las entidades colaboradoras en la devolución del Impuesto sobre el Valor Añadido en régimen de viajeros.

Corresponde a la diputada o diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas determinar las condiciones a las que se ajustará la operativa de las entidades autorizadas por la Dirección General de Hacienda a intervenir como entidades colaboradoras en el procedimiento de devolución a que se refiere el artículo 117.3 del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido, en relación con el procedimiento de devolución del Impuesto en régimen de viajeros regulado en el artículo 21. 2.º del mencionado Decreto Foral 102/1992.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuari eta ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuari jarraiki emandako baimen batzuen indarraldia.

1. Espresuki indargabetzen ez diren bitartean, honako baimenak indarrean egongo dira:

a) Apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuak, enpresari eta profesionalek fakturak egin eta emateko duten betebeharrak arautzekoak, 4.1 artikuluan ezarritakoaren, eta ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzekoak, 6. artikuluan 8. apartatuan ezarritakoaren arabera, hartzailaren datuak ez adierazteko emandako baimenak.

b) Ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzekoak, 18. artikuluan 1. apartatuko c) letran xedatutakoaren arabera emandako baimenak, betiere baimendutako elementuak foru dekretu honek onartutako Erregelamenduaren 10. artikuluan ezarritakoa betetzen badute.

2. Apirilaren 21eko 43/1998 Foru Dekretuak, enpresari eta profesionalek faktura egin eta emateko duten betebeharrak arautzekoak, 4. artikuluan 2. apartatuko n) letran ezarritakoaren arabera emandako baimenak ordezko dokumentuak jaulkitzeko, eta ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuak, faktura egiteko obligazioak arautzekoak, 4. artikuluan 1. apartatuko n) letran xedatutakoaren arabera emandako baimenak, ulertuko da faktura sinplifikatuak jaulkitzeko baimenak direla, foru dekretu honek onartutako Erregelamenduaren 4. artikuluan 3. apartatuan xedatutakoaren arabera, eta indarrean mantenduko dira harik eta espresuki errebotatu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe geratzen dira foru dekretu honetan ezarritako arekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak; eta, bereziki, ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretua, faktura egiteko obligazioak arautzekoak.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2013ko otsailaren 26a.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martín Garitano Larrañaga.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Helena Franco Ibarzabal.

(246)

(2114)

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Régimen de vigencia de determinadas autorizaciones concedidas de acuerdo con el Decreto Foral 43/1998, de 21 de abril y el Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio.

1. Se mantendrán vigentes mientras no se revoquen expresamente:

a) Las autorizaciones concedidas conforme al artículo 4.1 del Decreto Foral 43/1998, de 21 de abril, por el que se regula el deber de expedir y entregar factura que incumbe a los empresarios y profesionales, y conforme al apartado 8 del artículo 6 del Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio, por el que se regulan las obligaciones de facturación, para la no consignación de los datos del destinatario.

b) Las autorizaciones concedidas conforme a lo dispuesto en la letra c) del apartado 1 del artículo 18 del Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio, por el que se regulan las obligaciones de facturación, siempre que los elementos autorizados se ajusten a lo establecido en el artículo 10 del Reglamento aprobado por el presente decreto foral.

2. Las autorizaciones concedidas conforme a la letra n) del apartado 2 del artículo 4 del Decreto Foral 43/1998, de 21 de abril, por el que se regula el deber de expedir y entregar factura que incumbe a los empresarios y profesionales, para la expedición de documentos sustitutivos, así como las autorizaciones concedidas conforme lo dispuesto en la letra n) del apartado 1 del artículo 4 del Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio, por el que se regulan las obligaciones de facturación, se entenderán que son autorizaciones para la emisión de facturas simplificadas, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 4, apartado 3 del Reglamento aprobado por este decreto foral, manteniéndose vigentes mientras no se revoquen expresamente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo previsto en el presente decreto foral, y en particular el Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio, por el que se regulan las obligaciones de facturación.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 26 de febrero de 2013

EL DIPUTADO GENERAL,
Martín Garitano Larrañaga.

LA DIPUTADA FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Helena Franco Ibarzabal.

(246)

(2114)

ERANSKINA

Fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua
ATARIKO TITULUA

ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOA

1. artikulua. Eragiketen frogagiriak egin, eman eta gordezko obligazioa.

I. TITULUA

ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOA
BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ONDORIOETARAKO

I. KAPITULUA FAKTURA EGIN BEHARRA DAKARTEN KASUAK

2. artikulua. Faktura egiteko obligazioa.

3. artikulua. Faktura egiteko obligazioaren salbuespenak.

4. artikulua. Faktura sinplifikatuak.

5. artikulua. Faktura egiteko obligazioa hartzaileak edo hirugarren batek betetzea.

II. KAPITULUA. FAKTUREN BEHARKIZUNAK

6. artikulua. Fakturaren edukia.

7. artikulua. Faktura sinplifikatuen edukia.

8. artikulua. Fakturak egiteko bitartekoa.

9. artikulua. Faktura elektronikoa.

10. artikulua. Faktura elektronikoaren benetakotasuna eta osotasuna.

11. artikulua. Fakturak egiteko epea.

12. artikulua. Fakturak egin eta adierazteko moneta eta hizkuntza.

13. artikulua. Faktura laburtzaileak.

14. artikulua. Fakturen ale bikoiztuak.

15. artikulua. Faktura zuzentzaileak.

16. artikulua. Eragiketarako dokumentatzeko obligazioaren berezitasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezietan.

III. KAPITULUA. FAKTURAK BIDALTZEA

17. artikulua. Fakturak bidaltzeko obligazioa.

18. artikulua. Fakturak bidaltzeko epea.

IV. KAPITULUA. FAKTURAK ETA BESTELAKO DOKUMENTUAK GORDETZEA

19. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordezko obligazioa.

20. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordezko erak.

21. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak bitarteko elektronikoen bidez gordetzea.

22. artikulua. Fakturak eta bestelako dokumentuak gordezko lekuak.

23. artikulua. Zerga Administrazioa faktura eta bestelako dokumentuetara iristea.

V. KAPITULUA. BESTELAKO XEDAPENAK

24. artikulua. Fakturazioaren inguruko gorabeherak ebaztea.

ANEXO

Reglamento que regula las obligaciones de facturación

TÍTULO PRELIMINAR

OBLIGACIÓN DE DOCUMENTACIÓN DE LAS OPERACIONES

Artículo 1. Obligación de expedir, entregar y conservar justificantes de las operaciones.

TÍTULO I

OBLIGACIÓN DE DOCUMENTACIÓN DE LAS OPERACIONES A LOS EFECTOS DEL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

CAPÍTULO I. SUPUESTOS DE EXPEDICIÓN DE FACTURA

Artículo 2. Obligación de expedir factura.

Artículo 3. Excepciones a la obligación de expedir factura.

Artículo 4. Facturas simplificadas.

Artículo 5. Cumplimiento de la obligación de expedir factura por el destinatario o por un tercero.

CAPÍTULO II. REQUISITOS DE LAS FACTURAS

Artículo 6. Contenido de la factura.

Artículo 7. Contenido de las facturas simplificadas.

Artículo 8. Medios de expedición de las facturas.

Artículo 9. Factura electrónica.

Artículo 10. Autenticidad e integridad de la factura electrónica.

Artículo 11. Plazo para la expedición de las facturas.

Artículo 12. Moneda y lengua en que se podrán expresar y expedir las facturas

Artículo 13. Facturas recapitulativas.

Artículo 14. Duplicados de las facturas.

Artículo 15. Facturas rectificativas.

Artículo 16. Particularidades de la obligación de documentar las operaciones en los regímenes especiales del Impuesto sobre el Valor Añadido.

CAPÍTULO III. REMISIÓN DE FACTURAS

Artículo 17. Obligación de remisión de las facturas.

Artículo 18. Plazo para la remisión de las facturas.

CAPÍTULO IV. CONSERVACIÓN DE FACTURAS Y OTROS DOCUMENTOS

Artículo 19. Obligación de conservación de facturas y otros documentos.

Artículo 20. Formas de conservación de las facturas y otros documentos.

Artículo 21. Conservación de las facturas y otros documentos por medios electrónicos.

Artículo 22. Lugar de conservación de las facturas y otros documentos.

Artículo 23. Acceso de la Administración tributaria a las facturas y a otros documentos.

CAPÍTULO V. OTRAS DISPOSICIONES

Artículo 24. Resolución de controversias en materia de facturación.

II. TITULUA

DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOAK BESTE ZERGA BATZUEN ONDORIOETARAKO ETA BESTE ESPARRU BATZUETAN

25. artikulua. I. tituluko xedapenak aplikatzea.

26. artikulua. Eragiketak dokumentatzeko obligazioaren berezitasunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehen xedapen gehigarria. Fakturatzeko obligazioak beste esparru batzuetan.

Bigarren xedapen gehigarria. Argindarrari buruzko hornikuntza eta produktu batzuen fakturazioa.

Hirugarren xedapen gehigarria. Zerbitzu prestazio jakin batzuk fakturatzeko bidaia agentziek bitartekari gisa esku hartzen dutenean beste batzuen izen eta kontura.

Laugarren xedapen gehigarria. Ekainaren 15eko 61/2004 Foru Dekretuari, faktura egiteko obligazioak arautzekoari, egindako erreferentziak.

Bosgarren xedapen gehigarria. Energiaren Batzorde Nazionalak fakturak egitea argindarra banatzen dutenen edo erregimen berezian produzitzen dutenen edo haien ordezkarien izen eta kontura.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Hirugarren batek fakturak egitea edo gordetzea komunikatzea.

Bigarrena. Ordezko dokumentuak faturekin ordeztea edo trukatzeta.

ATARIKO TITULUA

ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOA

1. artikulua. *Eragiketen frogagiriak egin, eman eta gordetzeko obligazioa.*

Enpresariak edo profesionalak behartuta daude fakturak edo bestelako frogagiriak egitera eta, hala badagokio, ematera, bai eta haien kopia edo matrizea gordetzera ere, beren jarduera enpresarial edo profesionalaren barruan egiten dituzten eragiketengatik. Era berean, behartuta daude beste enpresari edo profesionalengandik jasotako faktura edo frogagiriak gordetzera eragiketen hartzaileak beraiek direnean eta eragiketa horiek aipatutako jardueraren garapenean eginak direnean.

Orobat, enpresari edo profesionalak ez diren beste pertsona edo entitateak ere behartuta daude egiten dituzten eragiketen faktura edo bestelako frogagiriak egin eta gordetzera Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraiki.

I. TITULUA

ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO OBLIGAZIOA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ONDORIOETARAKO

I. KAPITULUA. FAKTURA EGIN BEHARRA DAKARTEN KASUAK

2. artikulua. *Faktura egiteko obligazioa.*

1. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 164.bat.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresariak edo profesionalak beren jardueraren barruan ondasun salmenta eta zerbitzu

TÍTULO II

OBLIGACIONES DE DOCUMENTACIÓN A EFECTOS DE OTROS TRIBUTOS Y EN OTROS ÁMBITOS

Artículo 25. Aplicación de las disposiciones del Título I.

Artículo 26. Particularidades de la obligación de documentar las operaciones en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera. Deberes de facturación en otros ámbitos.

Segunda. Facturación de determinadas entregas y productos sobre energía eléctrica.

Tercera. Facturación de determinadas prestaciones de servicios en cuya realización intervienen agencias de viajes que actúen como mediadoras en nombre y por cuenta ajena.

Cuarta. Referencias al Decreto Foral 61/2004, de 15 de junio, por el que se regulan las obligaciones de facturación.

Quinta. Expedición de factura por la Comisión Nacional de Energía en nombre y por cuenta de los distribuidores y de los productores de energía eléctrica en régimen especial o de sus representantes.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera. Comunicación de la expedición o conservación de facturas por un tercero.

Segunda. Sustitución o canje de documentos sustitutivos por facturas.

TÍTULO PRELIMINAR

OBLIGACIÓN DE DOCUMENTACIÓN DE LAS OPERACIONES

Artículo 1. *Obligación de expedir, entregar y conservar justificantes de las operaciones.*

Los empresarios o profesionales están obligados a expedir y entregar, en su caso, factura u otros justificantes por las operaciones que realicen en el desarrollo de su actividad empresarial o profesional, así como a conservar copia o matriz de aquellos. Igualmente, están obligados a conservar las facturas u otros justificantes recibidos de otros empresarios o profesionales por las operaciones de las que sean destinatarios y que se efectúen en desarrollo de la citada actividad.

Asimismo, otras personas y entidades que no tengan la condición de empresarios o profesionales están obligadas a expedir y conservar factura u otros justificantes de las operaciones que realicen en los términos establecidos en este Reglamento.

TÍTULO I

OBLIGACIÓN DE DOCUMENTACIÓN DE LAS OPERACIONES A LOS EFECTOS DEL IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO

CAPÍTULO I. SUPUESTOS DE EXPEDICIÓN DE FACTURA

Artículo 2. *Obligación de expedir factura.*

1. De acuerdo con el artículo 164.uno.3.º del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido, los empresarios o profesionales están obligados a expedir factura y copia de esta por las

prestazioak egiten dituztenean faktura bat eta honen kopia bat egin behar dute Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraiki, baita zergari lotu gabeko eragiketak eta zergari lotuak baino salbuetsitakoak direnean ere. Salbuespen bakarrak Erregelamendu honetan ezarritakoak izango dira. Obligazio hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezietara bilduta dauden enpresari edo profesionalak ere izango dute.

Ordainketak jasotzen badira aurreko paragrafoaren arabera obligazio hau betetzea exijitzen duten ondasun salmentak edo zerbitzu prestazioak burutu baino lehen, ordainketa horiengatik ere faktura bat eta honen kopia bat egin beharko da. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 25. artikuluan ezarritakoagatik Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden ondasun salmentak obligazio horretatik kanpo geratzen dira.

2. Ondoko eragiketak egiten direnean beti egongo da faktura eta honen kopia bat egiteko obligazioa:

a) Eragiketen hartzailea enpresari edo profesionala denean eta halakotzat jarduten duenean, eragiketa egiten duen enpresari edo profesionalaren tributazio erregimena zeinahi dela ere, eta, orobat, hartzaileak zerga izaerako edozein eskubidez baliatzeko hala eskatzen duenean.

b) Batasuneko beste estatu batera zuzendutako ondasun salmentak, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 25. artikuluan aipatuak.

c) Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 68.hiru eta bost artikuluan aipatzen dituen ondasun salmentak, baldin eta, artikulua horretan jasotzen diren erregelaren ondorioz, zergaren aplikazio lurraldean egindakotzat jotzen badira.

d) Europako Batasunetik kanpora igorri edo garraiatutako ondasun salmentak, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 21. artikuluan 1 eta 2 zenbakietan aipatuak, artikulua horren 2.B) apartatuan aipatzen diren zergarik gabeko dendetan egindakoak izan ezik.

e) Eskura jarri aurretik instalatu edo muntatu behar diren ondasun salmentak, hain zuzen ere, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 68.bi.2 artikuluan aipatuak.

f) Eragiketen hartzaileak enpresari edo profesional gisa jarduten ez duten pertsona juridikoak direnean, zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dauden kontuan hartu gabe, edo hartzaile horiek azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 2. artikuluan jasotzen dituen herri administrazioak direnean.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako faktura egiteko obligazioa Erregelamendu honetan ezarritako arauetara lotuko zaie, honako kasu hauetan:

a) Ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioa zergaren aplikazio lurraldean egin dela ulertzen denean, salbu eta ondasunaren hornitzailea edo zerbitzu emailea lurralde horretan finkatuta ez badago, zergaren subjektu pasiboa zergapeko eragiketaren hartzailea bada eta faktura ez badu azken horrek egin Erregelamendu honen 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

entregas de bienes y prestaciones de servicios que realicen en el desarrollo de su actividad, incluidas las no sujetas y las sujetas pero exentas del Impuesto, en los términos establecidos en este Reglamento y sin más excepciones que las previstas en él. Esta obligación incumbe asimismo a los empresarios o profesionales acogidos a los regímenes especiales del Impuesto sobre el Valor Añadido.

También deberá expedirse factura y copia de esta por los pagos recibidos con anterioridad a la realización de las entregas de bienes o prestaciones de servicios por las que deba asimismo cumplirse esta obligación conforme al párrafo anterior, a excepción de las entregas de bienes exentas del Impuesto sobre el Valor Añadido por aplicación de lo dispuesto en el artículo 25 del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido.

2. Deberá expedirse factura y copia de esta en todo caso en las siguientes operaciones:

a) Aquéllas en las que el destinatario sea un empresario o profesional que actúe como tal, con independencia del régimen de tributación al que se encuentre acogido el empresario o profesional que realice la operación, así como cualesquiera otras en las que el destinatario así lo exija para el ejercicio de cualquier derecho de naturaleza tributaria.

b) Las entregas de bienes destinados a otro Estado miembro a que se refiere el artículo 25 del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido.

c) Las entregas de bienes a que se refieren el artículo 68. tres y cinco del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido cuando, por aplicación de las reglas referidas en dicho precepto, se entiendan realizadas en el territorio de aplicación del impuesto.

d) Las entregas de bienes expedidos o transportados fuera de la Comunidad Europea a que se refiere el artículo 21. 1.º y 2.º del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido, excepto las efectuadas en las tiendas libres de impuestos a que se refiere el apartado 2.º B) del citado artículo.

e) Las entregas de bienes que han de ser objeto de instalación o montaje antes de su puesta a disposición a que se refiere el artículo 68.dos.2.º del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido.

f) Aquéllas de las que sean destinatarias personas jurídicas que no actúen como empresarios o profesionales, con independencia de que se encuentren establecidas en el territorio de aplicación del impuesto o no, o las Administraciones públicas a que se refiere el artículo 2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3. La obligación de expedir factura a que se refieren los apartados anteriores, se ajustará a las normas establecidas en este Reglamento, en los siguientes supuestos:

a) Cuando la entrega de bienes o la prestación de servicios a que se refiera se entienda realizada en el territorio de aplicación del Impuesto, salvo que el proveedor del bien o prestador del servicio no se encuentre establecido en el citado territorio, el sujeto pasivo del Impuesto sea el destinatario para quien se realice la operación sujeta al mismo y la factura no sea expedida por este último con arreglo a lo establecido en el artículo 5 de este Reglamento.

b) Hornitzailea edo zerbitzu emailea zergaren aplikazio lurraldean finkatuta dagoenean edo lurralde horretan establezimendu iraunkor bat edo, bestela, bere egoitza edo ohiko bizilekua daukanean eta bertatik egiten duenean ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioa eta salmenta edo prestazio hori, aplikatzekoak diren lokalizazio erregelaren arabera, zergaren aplikazio lurraldean ez dela egin ulertzen denean, honako kasu hauetan:

a') Eragiketa beste estatu kide bateko zergari lotuta dagoenean, zergaren subjektu pasiboa eragiketaren hartzailea denean eta faktura ez duenean azken horrek egin materialki, ondasunaren hornitzailearen edo zerbitzu emailearen izenean eta haren kontura.

b') Eragiketa Erkidegotik kanpora egin dela ulertzen denean.

4. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoan, 97. artikuluan lehenengo apartatuko 4. zenbakian aipatzen den kontabilitateko frogagiri balioa izango du, eragiketaren kontabilitate idazpenaren euskarriz har daitekeen edozein dokumentu, eragiketa Batasunean establezimendurik ez duen enpresari edo profesional batek egiten duenean.

3. artikulua. Faktura egiteko obligazioaren salbuespenak.

1. Egiten diren eragiketak jarraian aipatzen direnak badira ez da faktura egiteko obligaziorik izango, Erregelamendu honen 2. artikuluan 2. apartatuan jasotako kasuetan izan ezik:

a) Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzen duenak, 20. artikuluan ezarritakoarengatik Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden eragiketak, ondorengo 2. apartatuan aipatzen direnak izan ezik. Nolanahi ere, foru dekretu horren 20. bat artikuluan 2., 3., 4., 5., 15., 20., 21., 22., 24. eta 25. zenbakietan xedatutakoarengatik zerga honetan salbuetsita dauden eragiketen kasuan, faktura egitea derrigorrezkoa izango da.

b) Enpresari edo profesionalak beren jardueren barruan egindako eragiketak, jarduera horiei baliokidetasun errekaraguarren erregimen berezia aplikatzen zaienean.

Dena den, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 154. bi artikuluan aipatutako ondasun higiezin salmentak egitean subjektu pasiboak salbuespenari uko egin badiu, beti egin beharko da faktura salmenta horientatik.

c) Enpresari edo profesionalak beren jardueren barruan egindako eragiketak, jarduera horientatik zergaren erregimen erraztura bilduta daudenean, sortutako kuoten kalkulua sarreraren bolumena kontuan hartuz egiten denean izan ezik.

Dena den, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoak, 123. bat. B). 3 artikuluan aipatzen dituen aktibo finkoen eskualdaketak egiten badira, beti egin beharko da faktura eskualdaketak horientatik.

d) Faktura ez egitea baimendua duten eragiketak, Ogasun Zuzendaritza Nagusiaren sektore enpresarial edo profesionalen nahiz enpresa jakin batzuei dagokienez hala baimentzen duenean jarduera enpresarial edo profesionalen garapenean gora-beherak saihestearren.

2. Abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Legea egokitzekoan, 20. Bat eta 16. artikuluetan eta 18. artikuluan a) tik n) rako apartatuetan definitutako zerbitzu prestazioak direnean, ez da faktura egiteko obligaziorik izango; salbuespena izango da, aplikatzekoak

b) Cuando el proveedor o prestador esté establecido en el territorio de aplicación del Impuesto o tenga en el mismo un establecimiento permanente o, en su defecto, el lugar de su domicilio o residencia habitual, a partir del cual se efectúa la entrega de bienes o prestación de servicios y dicha entrega o prestación, conforme a las reglas de localización aplicables a las mismas, no se entienda realizada en el territorio de aplicación del Impuesto, en los siguientes supuestos:

a') Cuando la operación esté sujeta en otro Estado miembro, el sujeto pasivo del Impuesto sea el destinatario para quien se realice la operación y la factura no sea materialmente expedida por este último en nombre y por cuenta del proveedor del bien o prestador del servicio.

b') Cuando la operación se entienda realizada fuera de la Comunidad.

4. Tendrá la consideración de justificante contable a que se refiere el número 4.º del apartado uno del artículo 97 del Decreto Foral 102/1992, de 29 de diciembre, de adaptación de la Ley del Impuesto sobre el Valor Añadido, cualquier documento que sirva de soporte a la anotación contable de la operación cuando quien la realice sea un empresario o profesional no establecido en la Comunidad.

Artículo 3. Excepciones a la obligación de expedir factura.

1. No existirá obligación de expedir factura, salvo en los supuestos contenidos en el apartado 2 del artículo 2 de este Reglamento, por las operaciones siguientes:

